



2009KO OTSAILAREN 11KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko otsailaren hamaikan, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Hertero.

Amagoia Naldaiz Mingo zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2009ko urtarrilaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 13 zbk.dun fakturen zerrenda, HOGTEITA HAMAHAZPI MILA BOSTEHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA ZORTZI ZENTIMO (37.513,08,-)takoa eta 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun fakturen zerrenda, BERROGEITA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA HOGTEITA HAMALAU ZENTIMO (47.890,34 €)takoa, beren espedienteetan daudenak, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- SAN PRUDENTZIOKO KIROL KANTXA EGITEAGATIK SAN PRUDENTZIOKO JABEKIDE-EI ORDAINKETA .-

Udalak San Prudentzioko jabekideekin urbanizazioko zenbait lan egitea adostu zuen, udalak lan horien %50a jarriko zuela beraiekin hitzartuz. Hori horrela izanik, 2008 ekitaldiko aurrekontuan berrogeita hamar mila euroko partida aurrikusi zen, San Prudentzioko Kirol Kantxa izenburupean.

Lan horiek burutzen ari direlarik, San Prudentzioko Jabekideek, beraiek berrogei mila eta hogeita hiru euro eta berrogeita bi zentimo (40.023,42 €) ordaindu izanaren zuri-garriak aurkeztu dituzte eta udalari kopuru bereko dirutza eskatzen dute.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, San Prudentzioko jabekideei aipatu kopurua ematea onartzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-11-001 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua ematea astean 5 egun eta eguneko 2 ordu. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

- 385 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua murriztea astean 5 egun eta eguneko ordu betera, 2009-02-02tik aurrera bere semearekin bizitzera joan delako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 755 zbk.dun esped.: Dirusarreraren aldaketagatik etxebizitzaren alokairu eta mantentutako gastuak ordaintzeko dirulaguntzak aldatzea, urtarriletik abendura.

	Orain arte	Hemendik aurrera
Alokairua	185,00 €	150,80 €
Mantenimentua	92,5 €	48 10 €

Ematen zaiona eskatutakoaren %52 da.

- 09-01-004 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantentimenturako hilean 92,5 €ko dirulaguntza ematea, otsailetik abendura.

Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

V.- EMANDAKO ZENBAIT DIRULAGUNTZEN BERRI EMATEA.-

Jarraian Alkatetzaren Ebazpen bidez eman diren bi dirulaguntzen berri ematen da. Dirulaguntza hauek, ematea presazkoa zelako eman ziren alkatetzaren ebazpen bidez. Honako hauek dira:

1.- Gerriko, S.L.k abenduaren 12, 13 eta 14an antolatutako XX. liburu eta disko azokari dagokion dirulaguntza. Emandako dirulaguntza, liburu eta disketan egindako salmenten %15a da, BI MILA LAUEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMO (2.492,83 €)

2.- Rwanda taldeari, "Hirugarren mundua - Beste mundu bat posible da" izenburupean antolatutako jarduerarengatik. Emandako dirulaguntza SEIEHUN ETA HOGEITA HEMERE-TZI EURO ETA HOGEITA HAAMSEI ZENTIMO (639,36 €)

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



